



JAKARTA 2013TIK EUSKAL HERRIA 2017RA
ELIKADURA BURUJABETZA ERAIKIZ EUSKAL HERRIAN

EKONOMIA SOLIDARIOA

ĠERTUKO ELIKADURA SITEMAK ERAIKITZEKO BIDEA

KOORDINAZIOA

Agroekologia eta **Ondasun Kolektiboak**: EHNE Bizkaia

Elikadura Burujabetza eta Feminismoak: BIZILUR-Lankidetzarako eta Herrien Garapenerako Erakundea y Mundubat

Ekonomia Solidarioa. Elikadura sistema lokalak sortzeko bidea: VSF-Herrien Bidezko Elikadura eta Emaús Fundazio Soziala

DISEINUA ETA IRUDIAK

www.enriquevinuela.com

ITZULPENA

Igone Regidor García de Albéniz

LEGE-QORDAILUA

BI-1313-2015

Ez du merkataritza izaerarik. 3.0 lizentzia beraren pean partekatu. Lan hau edonork kopia, parteka eta bana dezake publikoki, baldin eta egilea aipatzen bada eta merkataritzako helburuekin erabiltzen ez bada. Dokumentua nolabait aldatzen bada edo horretatik abiatuta beste lan bat prestatzen bada, honen berdina den lizentziapean bakarrik banatu ahal izango da. Lizentzia osoa: creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/



ARGITALPENA DOAN DESKARGATZEKO

www.elikaherria.com

EUSKAL HERRIA, 2015EKO IRAILA

LAQUNTZAILEA



La Vía Campesinak bere proposamena Elikadura Burujabetzaren inguruan definitzen duenetik, hura osatzen dugun elkarteok hainbat tresna prestatu ditugu proposamen hori gure lurraldean aurrera eramateko. Funtsezko tresna horietako bat da, gure ustez, prestakuntza. Hori dela eta, duela urte batzuk prestakuntza lana burutzen dugu zentzu horretan, aurrez aurreko ikastaroak eta foro desberdinak antolatuz. Elikadura Burujabetza garatzeko ezinbestekotzat jotzen ditugun zenbait elementutan oinarritu da lana: beste erakundeekin batera egindako lana, ikuspuntu integrala eta kolektiboa.

Material honekin, oinarritzko elementu horiek aditzera eman nahi ditugu, eta Elikadura Burujabetza lortzeko prozesuan garrantzitsuak diren ardatzen inguruan garatu ere bai. Heldu beharreko lehen ardatza Agroekologia da, nekazariak hautatu duten ekoizpen eredu soziala, proiektuarekin aurrera egiten laguntzeko. **Agroekologiak**, ikusteko ikuspuntu berria ematen digu, hainbat dimentsioren bidez: teknikoenetik begiratzeak egunero jarduteko balio digu, lurrarekin eta gure ekosistemekin harremanetan gaudela; politikoenetik begiratzean, aldiz, gure prozesuetan erabakiak hartzeko dugun gaitasunari erreparatzen zaio. Zentzu horretan, prozesuak berak garrantzia handia hartzen du eredu aldatzeko orduan, modu kolektiboan hartuta, epe ertainean eta luzean. Banakakoa baino harago begiratzeko gai izan behar gara, eta egunero berehalako emaitzak izateko dugun behar hori gainditzen jakin behar dugu.

Nekazal munduan, prozesu horrek oinarritzko beste ardatz bat ere badu: Sarbidea **Ondasun Kolektiboetara** edo “bizitza iturrietara”; ura, haziak, lurra, ezagutza eta zaintzak guztion esku egon eta guztioi zuzendutako begiradaren bidez kudeatu behar dira, ez erruz agintariak “interes orokorra” deitu ohi duten horren bidez. Horretarako, ezinbestekoa da begirada kolektiboa berreskuratu eta horren inguruan hausnartzea, ondasun horiek mantentzen eta berreskuratzen jarraitzeko. Izan ere, merkatu kapitalista dela eta, beste edozein salgaitzat hartu ohi dira gaur egun.

Ondasun komun horiek definitzean, duela zenbait urtetik hona, zaintzak ere sartu ditugu, bai hirietan bai landa guneetan ekonomia feministak eta feminismo berriak sortzeak duten eraginetik abiatuta. Elikadura Burujabetza kontzeptuak berak justizia sozialarekiko konpromisoa biltzen du eta, hortaz, gizon eta emakumeen arteko berdintasunarekiko konpromisoa ere. Hori dela eta, **Feminismoen eta Elikadura Burujabetzaren** arteko harremana aukeratu dugu analisirako hirugarren ardatz gisa.

Azken ardatzari dagokionez, azpimarratu gura genuke Elikadura Burujabetzaren aldeko borroka beste borroka zabalago baten barruan sartzen dela, merkatu kapitalistak ekarritako balioak aldatzera bideratutakoa, hain zuzen. Horretarako, **Ekonomia Sozial eta Solidarioan** aurkitzen dugu mundu justuago baten alde borrokatzen duten hainbat arlotako pertsonak biltzen dituen eremua, begirada pertsonen benetako beharretara eta ez merkatu kapitalistak sortutako nahietara zuzentzeko.

Material hauetan, ardatz bakoitzaren inguruan hainbat kolektibok partekatutako hausnarketak biltzen dira. Espero dugu baliogarriak izatea abiapuntu gisa erabiltzen ditugun printzipioen, eta etorkizunera begira ditugun erronken gainean hausnartzeko eta horien analisia egiteko.



JAKARTA 2013TIK EUSKAL HERRIA 2017RA
ELIKADURA BURUJABETZA ERAIKIZ EUSKAL HERRIAN

EKONOMIA SOLIDARIOA

ĠERTUKO ELIKADURA SITEMAK ERAIKITZEKO BIDEA

~ 3. LIBURUXKA ~

1. SARRERA	8
2. ELIKAGAIEN MERKATU ĠLOBALAK EDO TOKIAN TOKIKOAK?.....	10
3. TOKIAN TOKIKO ELIKADURA-SISTEMA LORTZEKO (EDO ELIKADURA BERRIZ LOKAL BILAKATZEKO) PRAKTIKAK	
TOKIKO ZENBAIT ADIBIDE	12
TOKIKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN EGINKIZUNA	14
PROIEKTU KOLEKTIBOAK	15
4. BIBLIOGRAFIA	18
5. ERRONKAK	19

1. SARRERA

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren bidez, harreman ekonomikoak berrantolatu nahi dira parametro desberdinei erreparatuta. Kapitalaren, handituz doan esfera publiko eta pribatuen merkaturatze industrialaren eta ahalik eta etekin handienak ateratzeko logika erabili ordez, Ekonomia Solidarioak harreman berriak sortu nahi ditu ekoizpenaren, banaketaren, kontsumoaren eta finantzazioaren inguruan. Horretarako, justizian, lankidetzan, elkarrekikotasunean eta laguntzan oinarritu nahi da. Kapitala bilatu eta hura metatu ordez, Ekonomia Solidarioak pertsonak eta beren lana jartzen ditu sistema ekonomikoaren erdigunean. Hala, merkatuak pertsonen ongizatea eta planetako bizitza bermatzeko tresna dira.

(REAS aldizkaria, Elikadura Burujabetza, Biodibertsitatea eta Kulturak. Ikusi estekak).

Elikadura Burujabetzan oinarritutako elikagaien tokian tokiko merkatuak sortzeari dagokionez, hauxe dugu erronka nagusietako bat: nola abiatuko gara biderkatzeko, hedatzeko, gurutzatzeko eta finkatzeko gai diren oinarri ekonomiko bideragarrietatik, poliki-poliki sare sendo berri bat eratzeko, eredu ekonomiko kapitalista eta paternalista albo batera utzita. Aldaketa prozesurako, lehen aipatutako aldizkarian proposatzen den bezala, Ekonomia Solidarioko Printzipioen Gutuna aurkezten da landa ingurunean, bertan bide posibleak baitaude.



EKOIZPENARI DAGOKIONEZ

> Herriko biztanle guztien benetako beharrei erantzuteko behar dena soilik ekoizti behar dela ulertu eta onartu, ez hirugarrenen interesek kontrolatzen duten merkatu inbertsonalak eskatzen duena. Gertuen dauden biztanleen beharrek hasi behar gara, gure kontsumorako ekoiztiz, eta ekoiztitakoa besteekin partekatuz, bakoitzari falta zaionaren arabera.

> Kalitate ekologikoarekin ekoiztu, lurra berritzeko prozesu naturalak erabiliz eta ekoizpenak Naturarekin bat etorri behar dela ulertuz. Eraginkortasun energetikoa eta energia garbien erabilera sustatu, gure haziak kontserbatzeko tresna egokiak sortu, eta enpresa multinazionalak dakartzaten hazi hibrido, irradiatu eta transgenikoen menpekotasuna eta inbasioa ekidin. Oro har, nekazarien ezagutzak berreskuratzea.



GARAPENARI DAGOKIONEZ

> Guztion parte-hartzearekin, tokian tokiko garapenerako eredu berriak eraiki, tokiko ekoizpenean eta kontsumoan oinarritutako estrategiekin, eta ekoiztu beharrekoa planifikatuz.

> Ekoizleen artean aliantza estrategikoak sortu eta beren lurraldeetan aplikatzeko eskualde-oinarriak ezarri. Ongizate

kolektiboari zuzendutako egitura egonkorak sortu, lokaletik hasita globalera arte, eta benetako demokraziaren eta autokudeaketaren arabera kudeatu.

> Lanaren zentzu soziala berreskuratu eta lana burutzen dutenek hazten direla senti dezatela lortu. Prestakuntza eta lanpostuak garapen pertsonala eta tokian tokikoa lortzeko beharrezkoak arabera antolatu, ez merkatuko beharren arabera. Langile gazteei landa ingurunean lan egiteko aukera emango dieten enpresak eta proiektuak bultzatzea, ordezkoak eta jarraipena bermatuz.



KONTSUMOARI DAGOKIONEZ

> Gure enpresek edo jarduera ekonomikoek aliantzak sortu behar dituzte beti ondasunak eta zerbitzuak erabiltzen dituztenekin. Hauek, aldi berean, haien arteko sareak eratu behar dituzte. Hala, landa ingurunearen eta hiriaren arteko aliantzak sendotzen dira, eta praktikan jartzen dira ekonomia, nekazaritza eta kontsumo esperientzia berriak.

> Gure enpresak eta kontsumoa barne-merkatu sozial paralelo baten ikuspuntutik begiratuta antolatzea proposatzen da. Horrez gain, kontsumitzaile gisa dugun boterea bideratu nahi da, ekoizpenaren plangintzan modu arduratsuan parte hartuz eta denoi dagokigun erantzukizunaren zatia gure gain hartuz.



EKONOMIARI DAGOKIONEZ

> Enpresa-jarduera gertukoak eta tokian tokikoak, errentagarriak, biztanle guztien eta eskualdearen garapenera zuzendutakoak, eta bidezko harreman ekonomikoetan oinarrituta daudenak. Kopuruak baino gehiago, ikuspuntuak eta funtzionatzeko menpekotasun-eza bermatzeak dute garrantzia.

*Kapitalaren eta hura
pilatzearen ordez. Ekonomia
Solidarioak pertsonak eta
beren lana jartzen ditu sistema
ekonomikoaren erdigunean*

2. ELIKAGAIEN MERKATU GLOBALAK EDO TOKIAN TOKIKOAK?

Antza denez, gure elikaduran paradoxa argia dago: alde batetik, elikagai ugari ditugu eskuragarri eta horien artean aukera dezakegu, behar dugun informazio guztia omen dugu eta gure dieta kontrolatzen dugula uste dugu... Baina, bestetik, jaten dugunaren gaineko erabakiak hartzeko, gugandik (gure gizartetik eta interes orokorretatik) gero eta urrunago dauden mekanismoak erabiltzen dira.

Argi dago paketatutako, sakonki prozesatutako eta industrialki eraldatutako elikagaiak indarrez sartu direla gure elikaduran. Sagarrak, laranjak, madariak, meloiak, pasta, zerealak, arrainak, abereentzako bazka, esnea... Elikagai horiek guztiak lehen tokikoak ziren, baina gaur egun kontsumitzen ditugunak munduko edozein tokitatik etorritakoak izan daitezke. Horren adibide paradigmaticoa dira lekak. Oraindik ere lokalki ikusten ditugu, eta oinarrikoak dira elikadura piramidearen. Egia esan, Euskal Herrian kontsumitzen diren babarrunen, garbantzen, dilisten edo ilarren %80 beste herrialdeetatik inportatuak dira, besteak beste, Argentinatik, Brasiletik, Kanadatik, Mexikotik eta Ukrainatik. (Informazio gehiago **25 gramos** eta **Mentira Podrida** kanpainei buruzko txostenetan. Ikusi estekak).

Elikadura eredu globalizatu eta kilometriko honetan, beste alderdi bat nabarmendu behar da: biztanleek ezin dute zuzenean parte hartu gobernuan eta elikadura sistema osatzen duten elementuen kudeaketan. Gaur egungo sisteman, pertsonak ekoizpenean eta eraldaketan duten parte-hartzea mugatuta dago. Egiten duten bakarra da produktua banatzaileei edo bitartekoei eman, prezioen gainean

inolako erabakirik hartu ezinik, izan ere, askok ez dakite prezioa zein izango den.

Bestetik, kontsumitzaileen papera ere mugatuta dago: azken produktua erosi edo zerbitzua erabiltzen dute, horrek aurretiaz izan duen prozesu osoa ezagutzen ez dutela. Ekoizlearen eta kontsumitzailearen arteko lotura bakarra produktuak daraman etiketa da, eta horrek askotan, ezer argitu ordez, nahastu egiten gaitu.

Elikadura sistema globalizatuaren ordez, hainbat mekanismo proposatzen dira elikadura nolabait "lokalizatzeko". Horretarako, egun nagusitzen diren ekoizpen, eraldaketa eta banaketa ereduetatik aldetzen diren eredu alternatiboen aldeko apustua egiten da.

Ordezko eredu hauen bereizgarria da onurak dakartzatela hainbat arlotara:

INGURUMENARI LOTUTAKO ALDERDIAK

> Negutegi-efektuko gasen emisioa murrizten dute (gogoan izan behar dugu elikadura-sistema globalizatua emisioen ia ia erdiaren arduraduna dela).

> Eskaera energetiko gutxiago, zehazki, energia fosil gutxiago (petrolioia da elikadura-sistema globalizatuaren oinarria, hori erabiltzen baita ongarrietan, pestizidetan, mekanizazioan, garraioan edo ontziraketan, bestak beste).

> Kutsadura gutxiago (elikadura industria da egun Europako industriarik kutsakorrena).

> Besteak beste, nekazaritzako

biodibertsitatearen eta nekazaritza inguruneen galera larria gelditzen da.

ALDERDI EKONOMIKOAK

> Merkatu lokalek enplegu gehiago sortzen dute, eta mota askotarikoak, gainera.

> Sistema lokaletan inbertitzen den euro bakoitzeko, sistema globalizatuan lortutako diru-sarreraren bikoitza baino gehiago lortzen da.

> Nagusitzen den elikadura-katetik irteteko dauden aukera gutxietako bat dira.

> Merkatu lokalei eta ordezko kanalei esker, nekazaritzako larreak errentagarriak dira eta bizitza-maila egokia eman ahal diete nekazariei, langileei eta horien familiei.

ALDERDI SOZIALAK

> Tokian tokiko merkatuek gaitasun handiagoa dute ekoizleen, eraldatzaileen, kontsumitzaileen eta elikadura-katean parte hartzen duten beste eragileen arteko harreman zuzena sustatzeko, eta horri esker komunitateko harremanak sendotzen dira.

> Horrela, gainera, komunikazioa areagotzeko espazioak ere sortzen dira, kostuei buruzko informazioa partekatzeko eta tokiko elikaduraren ereduak nola funtzionatzen duen ulertzeko.

> Ordezko elikadura-sareek berriz sozializatzea eta ekoizpen, eraldaketa eta kontsumo prozesuak toki berean "lokalizatzea" dute helburu.

> Merkatu lokalek zubi bezala funtziona dezakete tokiko jarduera ekonomikoaren eta sare asoziatiboaren artean, erabakiak modu autonomo eta arduratsuan hartzeko mekanismoak ekarriz. Elikaduraren gobernantza egokirantz bideratzen gaituzte.

> Nekazaritzako jardueren bideragarritasuna ezinbestekoa da nekazaritza eta landa ingurunea bizirik mantentzeko. Eta landa inguruneak garrantzia handia du bai bertan bizi direnentzako bai komunitate osoarentzako.

> Osasunari dagokionez, elikagaietan nutriente kopuru bikaina mantentzeko gaitasun handiagoa dute sistema lokalek. Gainera, elikadura-katea konplexuagoa eta luzeagoa bilakatzen den heinean, eta gugandik gehiago aldentzen den heinean, arrisku gehiago daude.

Sistema lokaletan inbertitzen den euro bakoitzarekin, sistema globalizatuarekin lortzen diren irabazien bikoitza baino gehiago lortzen da

3. TOKIAN TOKIKO ELIKADURA-SISTEMA LORTZEKO (EDO ELIKADURA BERRIZ LOKAL BILAKATZEKO) PRAKTIKAK

Hainbat tresna edo mekanismo daude landa ingurunean eta hirietan kalitatezko eta bidezko elikadura-sistemak eraikitzeko. Besteak beste: Hiriko baratzeak, Prestakuntza eta gizarteratze tresna gisa, Elikadura-ikuskaritzak, Trantsizioan dauden hiriak, Landa garapen integraleko ekimenak.

TOKIKO ZENBAIT ADIBIDE:

URDUÑA (BIZKAIA)

2003. urtetik, lehen sektorearen aldeko apustua egiten du Urduñako Udalak, herri eta eskualde horretako biztanleak itotzen hasia zen krisialdiari aurre egiteko ardatz nagusi bezala erabiliz. Garapen lokal honetarako, nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoak sustatzen dira. Hori egiteko, **EKOIZPEN** sortu zen, aholkularitza agroekologikoko zerbitzua, alegia. Horren bidez, lehen sektorean aholkuak eman eta elikadura eredu berria eraikitzen laguntzen du, gertuagoa, zuzenagoa eta osasuntsuagoa dena.

Udalerrri honetako gizarte-agenteeek sinergia bat bideratzea lortu dute, agroekologia oinarri izanik garapen integrala lortzen ari baitira. Apurka-apurka lehen sektorea sendotuz doa, eta gero eta gehiago dira bertan finkatu diren pertsonak. Esperientzia honen arrakasta hiriko arlo eta sektore desberdinen laguntzari zor zaio (turismoa, eskola, erakundeak, Udala, nekazariak, baserritarrak...). Denon artean tokian tokiko elikadura-sistema lortzeko xedearekin, Elikadura Burujabetzaren balioak integratu dituzte udalerriko ohiko jarduera ugaritan. (Hiriko bazkarietan, ibilbide turistikoetan, merkatu eta azoketan, jarduera kulturaletan).

Zeharkako ekimena, adibidez, sukalde zentrala da. Sukalde honetan prestatzen da Urduñako zaharren egoitzan dauden 50 pertsonentzako bazkaria, beti tokiko produktuak erabiliz. Hurrengo helburua da denbora gutxian Urduñako eskola publikoko umeentzako bazkaria ere prestatzea. Ekimen hau aurrera eramateko, ezinbestekoa izan da tokiko erosketa publikoaren aldeko apustua egitea, eta horren etekinak dagoeneko antzematen dituzte tokiko ekonomiak eta bertako agenteek.

Esperientzia hau jakinarazteko, <http://regresandoalfuturo.org> 2.0 gunea sortu zen. Bertan aurki daiteke prozesuari buruzko informazio ugari.

Ekonomia inklusiboa eraiki da, baztertuta dauden pertsonen bizimodua hobetuz eta emakumeen ahalduntzea sustatuz

ROSARIO (ARGENTINA)

Hiri handi bateko bidezko elikadura-sistemaren adibidea.

70eko hamarkadan, Argentinako politika neoliberalak gizartean izandako eraginaren ondorioz, desindustrializazio prozesua abiarazi zen Rosario hirian. Landa inguruneko immigrazioa hazi egin zen eta pobrezia areagotu egin zen hiriaren inguruan. 80ko hamarkadan, gizarte-bazterketa horri aurre egiteko, autokontsumorako baratzeak agertzen hasi ziren.

Gaur arte, Rosarioko biztanleek 791 baratze komunitario jarri dituzte martxan, eta horietan 10.000 familia baino gehiago lanean daude barazkien ekoizpen organikoan. Eta barazki horiekin, gutxienez 40.000 pertsona elikatzen dira. Ekoiztakoaren zati bat asteko azoketan saltzen da; bestea, hiriko bi Agroindustria Sozialen bitartez, eraldatu egiten da, baratzean ekoiztutakoari balio erantsia emanez eta, bide batez, lanpostu gehiago sortuz.

Hau da, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren planteamenduei esker, Elikadura Burujabetzako praktika batek gizarte-bazterketa bizi zuten pertsonen bizimodua hobetu du. Horretarako, balio ekologiko handiko elikagaien ekoizpena eta egiazko irabaziak erabili dira; gune horietako paisaia hobetu da, zabortegi bilaka zitezkeen guneak emankor bihurtu baititu; denon parte-hartzea ahalbidetzen duen ekonomia eraiki da, ekoizleen eta kontsumitzaileen artean harreman zuzenak lortuz; baratzean diharduten emakumeen ahalduntzea hobetu da, gizartean integratu eta baratzeei esker lortutako irabaziak kontrola ditzaketelako; eta agroekologia sustatu da ekoizteko teknologia bezala, kanpoko baliabideak albo batera utzi ahal izateko eta tokiko baliabideak hobeto erabiltzeko.

(Informazio gehiago hemen: **Experiencias de Economía Social y Solidaria: compartiendo estrategias y aprendizajes**. Ikusi estekak)

A. TOKIKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN EGINKIZUNA

Argi dago merkataritza, nekazaritza eta elikadura politikek paper garrantzitsua izan dutela (eta oraindik ere badutela) elikadura sistema globala eraikitzeke prozesuan. Araudi konplexuak ezartzen dituzte, eta agerikoa da interes pribatuen eragina. Bestalde, politika horiek nahitaez lotuta daude gainerako arau eta politikei. Gizarte-, hezkuntza- eta osasun-politikekin, lurralde-antolamendukoekin eta ondasun kulturalakoekin batera, besteak beste, egun bizi dugun gizartea zehazten dute.

Oro har, toki mailan bideragarriagoa izaten da proiektu eraldatzaileak proposatzea eta aurrera eramatea. Besteak beste, udaleko langile teknikoek eta politikoez biztanleekin duten gertutasunari zor zaio hori, baita gobernantza modu berriak saiatzeko gaitasunari, lortutako emaitzak gertu sentitzeko aukerari eta emaitzen hedaturari ere. Kasu askotan, hainbat arlo biltzen dituzten dinamika sor daitezke komunitatean. (*Informazio gehiago hemen: Comercio Justo, Soberanía Alimentaria y Administraciones Públicas Locales. Un espacio para la construcción de alternativas. Ikusi estekak*).

Tokiko administrazio publikoek bultzatzen dituzten nekazaritzako elikagaien politikak:

- > Eskualdeko azpiegiturak.
- > Eskoletako jantokiak kudeaketa propioarekin.
- > Tokiko elikagaien erosketa publikoa
- > Lur funtsak.
- > Elikagaien diagnostikoak.
- > Gertuko zirkuituen sustapena (merkatuak, denda txikietako salmenta, tokiko produktuak identifikatzea...)
- > Sarbidea lurretara, aisiarako baratzeetara edo instalaziora.
- > Hirien inguruetako nekazaritza guneak zaintzeko planak.
- > Garapen integrareko planak.

Politika publikoak prestatzeko, Erosketa Publiko honen ereduari jarrai diezaiok (*Informazio gehiago hemen: Campaña Compra Pública Alimentaria - Cortocircuito. Ikusi estekak*):

1. Konpromiso politikoa. Konpromiso politikoa egotea komeni da, horrek islatzen baitu administrazio eskudunak bide horretatik joateko ardura eta nahia dituela. Konpromiso hau era desberdinetan erakuts daiteke, baina ahal bezain loteslea izan behar da.

2. Funtsezko parte-hartzaileak identifikatzea eta prozesuan sartzea. Politika publikoko prozesu bat eraginkorra izan dadin, hainbat langileren parte-hartzea lortu behar da: kontratatzen dutenena, kontratu horiei lotutako eremuetan lan egiten duten teknikoena, hornitzaileena eta azken erabiltzaileena. Parte-hartzaile horiek jakin behar dute irizpide berri horiei heldu behar dietela, eta horien gaineko prestakuntza eman behar zaie. Hala, aktiboki parte hartuko dute eta eragile eraldatzaile bilakatuko dira.

3. Hasierako esperientziak, kontratatze sektoreak, sar daitezkeen elikagaiak, etab. hautatzea. Aurretiaz ezartzea zein kontratu-motatan aplikatuko diren gizarte- eta ingurumen-klausula hauek. Lehentasuna emango zaie errazenei, antzeko esperientzia gehiago daudelako, aukerarik etikoenaren eta sozialenaren merkatuan eskaintza handiagoa dagoelako, eta kontratazioan eragin handiagoa lortzeko.

4. Kontratazio-prozesu espezifikoak identifikatzea. Lan egiteko erabiliko ditugun produktuak, zerbitzuak edo lanak kontratatzekeo dugun ohiko erak erabaki dezake irizpide sozialak sartzeko erraztasun-maila.

5. Ekintza-plan bat garatzea, kontratatzekeo lan-mahaien sorrera biltzen duena. Barruko lantalde batek prozesuan laguntzea komeni da. Taldea eragile desberdinen ordezkariak osatuko dute. Halaber, prozesuak poliki-poliki aurrera egin dezan eta eraginkorra izan dadin, kontuan hartu behar dira eskualde bakoitzak dituen benetako aukera zehatzak, eta portzentajeak, elikagaiak, zerbitzuak, etab. adostu behar dira.

6. Barneko eta kanpoko komunikazioa. Aurreko pausoari lotuta, barneko langileei eta beste interes-taldee zuzendutako komunikazio-ekintzek beren konpromiso politikoa sendotu eta epe-luzerako jarraipena bermatuko dute, betiere burutzen ari diren benetako ekintzen neurrikoak badira.

B. PROIEKTU KOLEKTIBOAK

Besteak beste, honako hauetaz ari gara: kontsumo taldeak, eraldaketa kooperatibak, kontsumo kooperatibak, eraldaketa zentroak... Zorionez, prozesu kolektiboen garapenak eta ikuspuntu horretatik lan egiten duten kooperatibek gero eta indar handiagoa dute. Ekimen hauek ekonomikoki bideragarriak dira, eta haien abiapuntua zera da: posiblea dela Elikadura Burujabetzaren proposamen politikoa praktikan jartzea eta egungo gizartean integratzea. Izan ere, Elikadura Burujabetzak ordezkari sistema gisa duen indarra frogatzeko, ezinbestekoa da horren esperientzia ekonomikoen bideragarritasuna.

Normalean, horrek esan nahi du oreka dinamikoa dagoela irudizkoaren eta errealitatearen artean, bideragarritasunaren ikuskera integraletik abiatuta (Ekonomia Solidarioak eta Ekonomia Feministak berrikusitakoa). Horretarako, garapena, beharrak, komunitatea, baliabideak edo ekonomia bezalako terminoei esanahi berria eman eta horiek erabiltzen hasi behar da.

Eta, horrez gain, zalantzan jarri behar dira barneko botere-harremanak, komunikazioa eta zainketak. Bukatzeko, ezinbestekoak dira prestakuntza, ikasitakoa partekatzea, plangintza egitea, kontabilizatzea eta koordinatzea. (*Informazio gehiago hemen: Dando vida a una idea. Ikusi estekak*).

Proiektu-mota hauen adibide dira Esnetik esnekien kooperatiba eta kontsumo taldeak.

ESNETIK

Esnetik kooperatiba mistoa da, irabazteko asmorik gabea, eta bertan hiru talde daude: ekoizleak, kontsumitzaileak eta erakunde laguntzaileak (sindikatuak, erakundeak, GKEak, udalak, etab.). Hurrenez hurren, honela banatzen da talde bakoitzak

Errazagoa da proiektu eraldatzaileak tokian proposatzea eta gauzatzea

Zuzendaritza Batzordean duen ordezkariak eta erabakiak hartzean botoek duten garrantzia: %45, %45 eta %10. Horrez gain, lan-batzordeak ere sortu dira. Beren lana beharretara egokitzen da, eta erabakiak hartzeko prozesuan parte har dezakete. Ageriko hainbat arrazoi zeuden kooperatiba hau sortzeko, Elikadura Burujabetzaren borrokaekin zuzenean lotutakoak:

> Ardi-esnea ekoizten zuten zenbait baserri bertan behera ez uztea, esne hori biltzen zela bermatuz, eta hura adostutako epean ordaintzea, prezio egoki bat ezarrita.

> Artzainen lana duin bihurtzea, egiten duten esfortzua aintzat hartuz. Beren lana eta jakintzak kontsumitzaileei aditzera emanez, eta bereziki emakumeek baserrietan egiten duten lanaren garrantzia agerian utziz.

> Gazteak sektorean lanean has daitezen sustatu, honako hauen bitartez: inbertsio “txiki” batekin hasteko aukera, salmentan lagunduta, gainerako nekazariekin batera espazio partekatutakoak sortuz eta esnearen truke prezio egokiak ordainduko direla bermatuz.

> Ekoizpen agroekologikorako aldaketa progresiboa sustatzea. Horretarako, abereentzako elikagai transgenikoak baztertzen hasi, hegoaldeko herrialdeetako biztanleekiko solidaritate ikur gisa ere balio duena, izan ere ondorio hondatzaileak ditu horrek bertan.

> Esnekien laborazioan eta merkaturatzean kontrola berreskuratzea, bitartekariak ekiditeko eta prezioak erabaki ahal izateko.

> Gertuko zirkuituak eta zuzeneko salmenta sustatzea, batez ere kontsumo taldeen artean, hirien eta bertako biztanleen konfiantza eta gertutasuna lortzeko.

> Elikagai osasuntsuak banatzea, kalitatezkoak, anitzak eta kulturalki egokiak direnak, arrazoizko prezioen truke.

> Ekoizleen eta kontsumitzaileen artean beti gertutasuna eta erantzukizun partekatua sustatzea.

Esnetik, Euskadiko Ekonomia Sozial eta Solidarioaren sarearen (REAS) eta merkatu sozialaren barruan dago. Konpromisoa hartu du gutun solidarioa eta bertako printzipioak errespetatzeko, baita urtero ikuskaritzak egiteko ere, zentzu horretan izandako bilakaera ikusteko. Horrez gain, konpromisoa hartzen du sareak eskaintzen dituen produktuak eta zerbitzuak ahal duen neurrian erabiltzeko, esaterako, zerbitzu finantzarioak edo energetikoak, lehengaien hornitzaileak, ikuspegi feministako edo agroekologikoko aholkularitza, etab.

Gainera, sareko lana erabiltzen du, hau da, harremana du hainbat erakunde eta kolektiborekin, kooperatibaren bilakaeran eta garapenean parte hartzera gonbidatzen ditu eta, aldi berean, kooperatibak beren laguntza eskaintzen die beren helburuak lor ditzaten.

Kontsumo taldeei dagokienez, eredu desberdinak aurki ditzakegu Euskal Herrian:

NEKASARE

Taldearen sare bat da Nekasare, pertsona ekoizle eta kontsumitzaileek osatzen dutena. 2007an abiarazi zen, EHNE Bizkaia sindikatuak bultzatuta. Talde hauen printzipio batzuk berdinak dira, adibidez, agroekologia edo erantzukizun partekatua. Sareak 40 talde baino gehiago biltzen ditu. Guztira, 900 familia kontsumitzaile eta 90 pertsona ekoizle dira gutxi-gorabehera. Halaber, gazte ugari sektorean ekiten hasteko balio izan du. Izan ere, nekazaritza pixkanaka ezartzeko eta sektore horretako lana duin bihurtzeko ezinbesteko tresna bezala ikusi dute formula hori. Horrez gain, hirien eta landa ingurunearen arteko harremanak areagotzeko modu bat ere bada.

BASHERRI

Elikagai osasuntsuak pertsona orooren eskura jarri nahi ditu, bai herritarrentzako

bai nekazariarentzako bidezkoa den prezio baten truke. Helburu hori lortzeko, elikadura burujabetzaren eta agroekologiaren printzipioetan oinarritzen da. 60 talde inguru daude Gipuzkoan. Horietan, pertsona ekoizleak eta kontsumitzaileak konpromisoa hartzen dute urtero, eta saskia astero biltzen da, zuzenean.

IDOKI

Nekazal produktuen merkaturatzea. 1992az geroztik dihardu Iparralden, 96 ekoizpen-unitaterekin (58 emakume eta 90 gizon). Ekoizleek beren ustategietatik ateratako lehengaiak bakarrik eraldatzen dituztela, ustategi horietan pertsonak lan egiten dutela eta zuzeneko salmenta sustatzen dela bermatzen du.

BASABURUKO SASKIA

Saskien kontsumitzaileen sarea. 4 baserrien elkarte. Gakoak: kalitatezko produktuak (saski anitza, jatorri-deiturak, autokontrola) eta inguruko nekazariak mantentzen direla bermatzea (ordezkoak).

Honelako esperientziak ezinbestekoak dira frogatzeko nekazaritzako elikagaien eredu desberdin bat posible dela, eta bidezko elikadura sistemak kolektiboki eraiki daitezkeela, parte-hartzea eta koordinazioa oinarri. Hala ere, hainbat zailtasun esanguratsu daude bidean:

> Legeei eta arauari lotutako eragozpenak.

> Botere ekonomikoaren kontrol izugarria, instituzio politikoaren gainean ere bai.

> Balio kapitalisten eta patriarkalen hedapena, homogeneizatzen gaituen kultura global bati lotutakoak, kolektiboaren beraien kulturaren ere bai.


> Herriko jakintza tradizionalak laidoztatzen dira, ezagutza akademiko eta teknologikoei lehentasuna emanez.

> Oro har, herritarrek ez dira konturatzen elikaduraren gaineko kontrola galdu dela, elikadura eskubide bezala ulertuta.

> Ekonomiaren alde hori, ekoizpenarena, ez da aintzat hartzen.

Esperientzia txiki hauekin eta horien bidez sustatu nahi diren balioekin, estrategia kolektibo eta koordinatuak bilatu nahi dira, parte-hartzean oinarrituta, haien artean eta beste kolektiboekin lotura dutenak, erronka hauei guztiei aurre egiteko. Hori oso garrantzitsua da eraldaketarako hezkuntzan; alderdi tekniko, metodologiko eta politikoaren gaineko aholkularitza eta prestakuntza; eragin politikoan; eskubideen babesean eta parte-hartzean oinarritzen diren espazio politikoak eta sozialak aldarrikatzeko eta sortzeko.

Hala ere, aldi berean gogoan izan behar dugu aliantzak eta lan kolektiboa prozesu luzeak direla, pedagogikoak eta kulturalki, baina ez linealak. Prozesu horien erritmoa esperientzia ekonomikora egokitu behar da, horren bideragarritasunaren arabera. Erritmo horien artean oreka egon behar da. Izan ere, ekimen ekonomikoaren bideragarritasuna eta iraunkortasuna neurri batean azpiko prozesu horri lotuta daude.



Era honetako esperientziak ezinbestekoak dira elikadura eredu desberdin bat ere bideragarria dela frogatzeko

4. BIBLIOGRAFIA

AAVV (2010): Sistematización de experiencias de Economía Social y Solidaria Sur-Norte. Emaús Fundazio Soziala, REAS, RILESS, Hegoa. Bilbo.

<http://emauscursos.com/pdf/HEGO-IPAR+GIDA.pdf>

<http://emauscursos.com/pdf/GUIA+SUR-NORTE.pdf>

AAVV (2014): Práticas de comercialização. Una proposta de formação para e economia solidária de a agricultura familiar. Instituto Kairós y Capina. Sao Paulo (Brasil).

<http://institutokairos.net/wp-content/uploads/2014/02/Kairos-Praticas-de-Comercializacao.pdf>

AYERDI, A. (koord.); FERNANDEZ, F.; GARCÍA, F.; DURO, I. (2011): Políticas Públicas a favor de la Soberanía Alimentaria. Emaús Fundación Social, EHNE-Bizkaia eta VSF-Herrien Bidezko Elikadura. Donostia.

<http://emauscursos.com/pdf/Analisis+de+la+CAPV.pdf>

<http://emauscursos.com/pdf/EAEko+Azterketa.pdf>

AYERDI, A. (koord.); GASTÓN, A.; BADAL, M. (2014): Soberanía Alimentaria, Comercio Justo y Administraciones Públicas. Un espacio para la construcción de alternativas. Emaús Fundazio Soziala. Donostia.

<http://emauscursos.com/pdf/SobAlimentariaComJustoAdmPublicas-BUENO.pdf>

<http://emauscursos.com/pdf/>

[ElikaduraBurujabetzaBidezkoMerkataritzaTokikoAdministrazioPublikoakIssuu.pdf](http://elikeduraBurujabetzaBidezkoMerkataritzaTokikoAdministrazioPublikoakIssuu.pdf)

AYERDI, A. (koord.); LARRUSKAIN, O.; ARCOS, A.; ALVAREZ, I. (2014): Dando vida a una idea. Herramienta práctica para los procesos de viabilidad integral en experiencias económicas de Soberanía Alimentaria. Emaús Fundazio Soziala, EHNE-Bizkaia. Donostia.

<http://emauscursos.com/pdf/DEF-ideaiaBatiBiziaEmanezBajaResolucionPliegos.pdf>

<http://emauscursos.com/pdf/DEF-DandoVidaBajaResolucionPliegos.pdf>

FERNANDEZ.S, GARCIA F. GUZMAN J. (2013). Compra Pública en sistemas alimentarios locales. Impactos Sociales, Ambientales y Económicos. VSF Justicia Alimentaria Global.

http://vsf.org.es/sites/default/files/docs/compra_publica_en_sistemas_alimentarios_locales_-_impactos_sociales_ambientales_y_economicos.pdf

FERNANDEZ.S, GARCIA F. GUZMAN J. (2013). Criterios de justicia alimentaria en la compra pública de alimentos - Guía para administraciones públicas. VSF Herrien Bidezko Elikadura.

http://vsf.org.es/sites/default/files/docs/guia_administraciones_publicas_criterios_o.pdf

GARCIA F. (Ikertzailea) GUZMAN J I (2014) Planeta Azúcar. Las armas con las que la industria domina nuestras vidas. VSF Herrien Bidezko Elikadura.

http://vsf.org.es/sites/default/files/planeta_azucar_las_armas_con_las_que_la_industria_alimentaria_doma_nuestras_vidas_version_web.pdf

GURIDI, L.; PÉREZ DE MENDIGUREN, J.C.; IAMETTI, A.; DEUX, M.V., VÁZQUEZ, G. y URIBE, A. (2011): Experiencias de Economía Social y Solidaria: compartiendo estrategias y aprendizajes. Emaús Fundazio Soziala, REAS, RILESS, Hegoa. Papeles de Economía Solidaria, 2. alea. REAS Euskadiren argitalpena. Bilbo.

http://www.economiasolidaria.org/papeles.ES_2

<http://emauscursos.com/pdf/Experiencias+ES+gasteleraz.pdf>

Elikadura Burujabetza, Biodibertsitatea eta Kulturak aldizkaria: Nuevas formulas de Economía. 12. Alea

<http://www.soberaniaalimentaria.info/publicados/numero-12/31-portada-n12>





INFORMAZIO OSAGARRIA

<http://regresandoalfuturo.org>. Udalerri honetan tokiko elikadura sistema eraikitzeke burutzen ari den prozesua osorik ezagutzeko gunea.

<http://www.economiasolidaria.org/redes/reas-euskadi>. REASen webgunea.

<http://www.konsumoresponsable.coop>. Merkatu Sozialaren webgunea.

5. ERRONKAK

-  Nola susta ditzakegu instalazio berriak eta nola motibatu trantsizioa eredu agroekologikoetara?
-  Parte-hartzean oinarritutako kultura sustatzea: koordinatzeko modu ezberdinak saiatzeko eskariari aurre egiteko eta baliabideak optimizatzeko (materialak, diruzkoak, denbora, energia, talentua, etab.). Zein sinergia ezarri eta nola, Ekonomia Solidarioaren ikuspuntutik bidezko eta tokian tokiko elikadura sistemak eraikitzeke beharrezkoak diren zerbitzuak (finantzariorak, komunikaziozkoak, aseguruak, energia, prestakuntza, aholkularitza, etab.) bultzatzen eta eskaintzen dituzten ekimenekin.
-  Gizartea sentsibilizatzea eta hezteko kontsumo arduratsuen inguruan, eskubideak dituzten eta aldaketa soziala lortzen lagun dezaketen eragileak baitira. Zein estrategiak eta mekanismok lagun diezagukete lan honetan? Nola lagun eta eragin dezakegu hezkuntza-komunitatean? Nola lor dezakegu pertsonen eta kolektiboek gertuko bidezko merkatu sozial anitzaren alde egitea eta modu arduratsuan elikaduraren kontrola hartzea?
-  Politika publikoak. Nola eragin dezakegu modu eraginkorrean Elikadura Burujabetzaren ardatz nagusietan? Hau da: lurrerako sarbidea, erosketa publikoa, merkatu-zirkuitu laburren sorrera eta eskualdeko azpiegituren garapena.

VSF-Herrien Bidezko Elikadura

www.vsf.org.es

EHNE Bizkaia

www.ehnebizkaia.eus

BIZILUR-Lankidetzarako eta Herrien Garapenerako Erakundea

www.bizilur.org

Mundubat

www.mundubat.org

Emaús Fundación Social

www.emaus.com

La Vía Campesina

www.viacampesina.org/es